

XX. IGANDEA URTEAN ZEHAR (A)

Otoitza

Ondasun miragarriak dituzu, Jauna, maite zaituztenentzat;
 biztu gure bihotzetan zeure maitasunaren garra,
 Zu gauza guztietan eta gauza guztien gainetik maite izanez,
 irits ditzagun guk asma ahala baino handiagoak diren Zuk agindutako ondasunak.
 Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Is 56, 1. 6-7.

Bilduko ditut arrotzak nire mendi santuan.

Isaias Profetaren liburutik

Honela mintzo da Jauna:
 «Egin bidezko dena,
 eta zabilzate zuzentasunez;
 berehala etorriko baita nire salbamena,
 eta agertuko nire garaipena.
 Jauna zerbitzatzeko, Haren izena maitatzeko
 eta Haren neskame-morroiz izateko
 Berari itsatsi zaizkion arrotzak,
 larunbata hutsegin gabe gordetzen
 eta nire elkargoan leial irauten dutenak:
 bilduko ditut nire mendi santuan,
 poztuko ditut nire otoitz etxean;
 onartuko ditut nire aldare gainean
 haien erre-opariak eta eskaintzak.
 Nire etxea otoitz etxe baita,
 eta hala deituko dute herri guztiek».

ERANTZUN SALMOA: Sal 66, 2-3. 5. 7-8

**R/. Ene Jainko, ospa zaitzate herriek,
 ospa zaitzate herri guztiek.**

Erruki bekigu Jainkoa, bedeinka gaitzala,
 ager diezagula aurpegi alaia;
 ezagutu dezaten lurrean zure bidea,
 herri guztietan Zugandiko salbamena. R/.

Poztu bitez kantari atzerriak,
 zuzenbidez baitaramazu izadia;
 zintzo baitituzu gidatzen herriak,
 eta zaintzen lurrean atzerriak. R/.

Lurrak bere uzta eman du,
 Jainkoak, gure Jainkoak, bedeinkatzen gaitu.
 Jainkoak bedeinka gaitzala,
 lur bazter guztiek beldur diotela. R/.

II. IRAKURGAIA: Erm 11, 13-15. 29-32

*Ezin aldatuak dira Israelentzat,
 Jainkoaren dohainak eta deia.*

San Paulo Apostoluak Erromatarrei

Senideok: Zuei diotsuet, jentiloi: «Jentilen apostolu naizenez, goresmen egingo diot nire zerbitzuari, ea nire odolekoen bekaizgoa bizten dudan eta horietako batzuk salbatzen ditudan. Haien gaitzesteak baketzea badakarkio munduari, zer izango da haien berriz- hartzea, heriotzatik bizira itzultzea baizik?

Ezin aldatuak dira Jainkoaren dohainak eta deia. Zuek, garai batean Jainkoari obeditu ez zeniotenek, orain judutarrek ez obeditzean, errukia iritsi duzuen bezala, haiek ere, orain obeditzen ez diotenek, zuei egin zaizuen errukia dela eta, iritsiko dute errukia.

Jaungoikoak, obeditzen ez dutenen arteko egin gaitu gizon-emakume guztiak, guztioi erruki egiteko».

EBANJELIOA: Mt 15, 21-28

Aleluia: Ik. Mt 4, 23

R/. Aleluia.

V/. Jesusek erreinuko berri ona hotsegiten zuen,
 eta gaitz guztiak sendatzen zituen herrian. R/.

Emakume, handia da zure sinestea!

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik

Aldi hartan, Jesus Tiro eta Sidongo lurraldera joan zen. Kanaandar emakume bat, alderdi haietatik aterata, deiadarka hasi zitzaion: «Jauna, Dabiden Seme, erruki zakizkit! Deabru gaizto-gaizto bat du nire alabak».

Jesusek, ordea, ez zion hitzik erantzun.

Ikasleak, hurbildurik, erreguka ari zitzaizkion: «Egiozu nahi duena, eta doala; atzetik datorkigu eta deiadarka».

Eta Hark erantzun zien: «Israelgo ardi galduetara bakarrik bidali naute».

Emakumea hurbildu zen, ordea, eta, ahozpezturik, honela esan zion: «Lagun iezadazu, Jauna!»

Jesusek erantzun: «Ez da egoki seme-alaben ogia hartu eta zakurrei botzatzea».

Eta emakumeak: «Egia, Jauna; baina txakurkumeek ere jaten dituzte, beren nagusien mahaitik jalkitako ogi apurrak».

Orduan Jesusek erantzun zion: «Emakume, handia da zure sinestea! Gerta bekizu, nahi duzun hori».

Eta ordu hartantxe sendatu zitzaion alaba.

Oparigaien gainekoa

Onar, Jauna, gure dohain hauek;
beroein bidez harreman miragarriak ditugu Zurekin; iguzu, Zuk emanak eskainiz,
Zeu izan zaitzagula sari.
Jesu Kristo.

Jaunartze ondorengoa

Jainko Jauna, sakramentu honetan Kristorekin bat eginik,
zure errukiari apalik deika gaude:
lur honetan Kristoren antzeko izanik,
zeruetan Haren lagun izatea irits dezagula.
Jesu Kristo.